ADMINISTRAZIO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA ADMINISTRAZIO-EMAKIDA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO

Independentzia Enparantzan dagoen erabilera anitzeko kioskoaren ustiapena

PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS PARTICULARES DE CONTRATO DE CONCESIÓN ADMINISTRATIVA POR PROCEDIMIENTO ABIERTO

Explotación del kiosko multiusos situado en Independentzia Enparantza

1. KONTATUAREN XEDEA

Erabilera anitzeko kioskoa: Marmol zurizko eraikin txikia, Santa Maria elizaren ondoan kokatutakoa. 61,95 m² ditu guztira, erabilgarriak 42,11 eta honela bananduta dago:

10,61 m² tabernak
7,31 m² sukaldeak
4,02 m² gozokiak saltzeko guneak
8,88 m² 1. biltegiak.
6,79 m² 2. biltegiak
4,50 m² WC

Gainera, adjudikatzaileak 60 m² ko terraza jarri ahal izango du kioskoaren ondoan, inguruak eskatzen duen bezalako mahai (gehienez 18), aulki eta itzalkiekin eta Udalak onartutako proposamenaren arabera.

Terrazaren erabilera mugatu (edo aldi baterako kendu) ahal izango du Udalak, kultura- edo kirol-ekitaldietarako beharra izanez gero, edo segurtasun-arrazoiengatik, eta emakidadunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik muga edo ezabapen horrengatik.

Era berean, esleipendunak hondartzatik plazarako sarbidean dauden komun publikoetan egokitutako gune bat erabili ahal izango du biltegi gisa.

WCaren mantenimendua eta garbitasuna Udalaren kargu dira.

2. ADJUDIKATZAILEAREN BETEBEHARRAK

- Lokala egunero ireki ahalko da eta ordutegia goizeko 9:00etatik goizaldeko 1:00etara izango da udan eta goizeko 9:00etatik gaueko 23:00etara neguan, beti ere jarduerari buruzko araudia betetzen. Honez gain, era honetako jarduerei dagokion araudia bete beharko da. Ordutegi hori aplikatuko da, baldin eta jarduera arautzen duten arau edo ordenantzen

1. OBJETO DEL CONTRATO

Kiosko multiuso: Pequeño edificio de mármol blanco junto a la iglesia de Santa Maria, de 61,95 m², de los cual 42,11 son útiles, distribuidos de la siguiente forma:

10,61 m² bar
7,31 m² cocina
4,02 m² caramelería
8,88 m² 1er almacén
6,79 m² 2º almacén
4,50 m² WC

Además, el/la adjudicatario/a podrá instalar una terraza de 60 m² junto al kiosko, con mesas (un máximo de 18) y sillas y sombrillas en consonancia con el entorno y de acuerdo con la propuesta aceptada por el Ayuntamiento.

El uso de terraza podrá limitarse (o incluso suprimirse temporalmente) por el Ayuntamiento en caso de necesidad para eventos culturales o deportivos, o por motivos de seguridad, sin que el concesionario o la concesionaria tenga derecho a indemnización por dicha limitación o supresión.

Asimismo, el/la adjudicatario/a podrá utilizar con finalidad de almacén un espacio habilitado en los baños públicos ubicados en el acceso a la plaza desde la playa.

El mantenimiento y limpieza del WC serán a cargo del Ayuntamiento.

2. OBLIGACIONES DEL/LA ADJUDICATARIO/A

- El local podrá abrirse a diario, siendo el horario de 9:00 de la mañana a la 1:00 de la madrugada en verano y de 9:00 de la mañana a 23:00 de la noche en invierno, debiendo, por otro lado, cumplir la normativa aplicable a este tipo de actividad. Este horario será de aplicación, siempre y cuando no haya un horario más restringido como

Lekeitioko Udala – Gamarra kalea 1 – 48280 LEKEITIO (Bizkaia) IFK/CIF: P4806700C Tlf.- 946034100- Fax 946034125 www.lekeitio.com

ondorioz ordutegi murritzagorik ez badago. Debetatuta dago “after hour” bezala ezagutzen den erabilera ematea.

- Udalarekin batera adostutako jarraipena izan beharko du zerbitzuak.
- Instalazioen zaintza, jendearekiko tratu arduratsu eta funtzionamenduaren konturako gainerako baldintzei buruz kontutan izango dira bakoitzean Udalak hartu eta jakinarazitako irizpideak.
- Zerbitzua emateko beharrezko baimen eta lizentziak lortuko ditu.
- Enparantzan kultur edo kirol mailako ekintzarik ospatuz gero, edota Udalak antolatutako edo baimendutako bestelako ekintzarik, ezinbestekoa izango da adjudikatzailearen laguntza, momentuan momentuko aginduak bete beharko dituelarik.
- Ur, gas eta argindarraren hornidurak ordaindu beharko ditu.
- Ezarritako kanona ordaindu beharko du, legezko tributuak eta baita aseguru-prima ere.
- Instalazioak eta elementu osagarriak egoera onean mantendu beharko dira, sinatutako erabilerarako beharrezkoak diren konponketak eta berrerosketak bere kontura izango direlarik.
- Eraikinaren mantentze-lanak (fatxada, teilatua/estalkia/hormak, sarrerako atea, pertsianak…) Udalaren esku egongo dira, eta inbentario-zerrendan ageri diren ekipamenduen mantentze-lanak esleipendunak egingo ditu.
- Material eta tresneri guztia adjudikatzailearen kontura izango da erabileran kontsumitu ala ez.
- Ezin izango da hobekuntza edo aldaketa lanik egin Udalaren baimenik gabe.
- Hobekuntza lanak lokalaren probetxurako gelditukо dira.
- Zerbitzua ganoraz ematen dela ziurtatuko du.

consecuencia de normativa u ordenanzas que regulen la actividad. Se prohíbe su funcionamiento como “After hour”.

- El servicio se prestará con la continuidad convenida con el Ayuntamiento.
- En cuanto al cuidado de las instalaciones, al trato esmerado al público y demás condiciones de funcionamiento serán de aplicación las directrices individuales que adopte y transmita el Ayuntamiento.
- Obtendrá todas las autorizaciones y licencias para llevar a cabo el servicio.
- En caso de celebrarse en la plaza alguna actuación cultural, deportiva o cualquier otro evento organizado o autorizado por el Ayuntamiento será imprescindible la colaboración del/la adjudicatario/a, debiendo observar las normas que puntualmente le indique el Ayuntamiento.
- Deberá abonar los suministros de agua, gas y electricidad del kiosko.
- Abonará el cánon establecido en el plazo señalado, los tributos legalmente exigibles así como la correspondiente prima de seguro.
- Las instalaciones y elementos complementarios se conservarán en perfecto estado, realizando por su cuenta las reparaciones necesarias y reponiéndolas, en su caso para destinarlas al uso pactado.
- El mantenimiento del edificio (fachada, tejado/cubierta/paredes, puerta de acceso, persianas….) correrá a cargo del Ayuntamiento, y el mantenimiento de los equipamientos que figuran en el listado de inventario correrá a cuenta de la persona adjudicataria.
- Todos los materiales y utensilios a emplear, sean o no consumibles por el uso, serán de cuenta del/la adjudicatario/a.
- No se podrán realizar mejoras o modificaciones sin la autorización del Ayuntamiento.
- Las obras de mejora quedarán en beneficio del local.
- Cuidará el buen orden del servicio.

Lekeitioko Udala – Gamarra kalea 1 – 48280 LEKEITIO (Bizkaia) IFK/CIF: P4806700C Tlf.- 946034100- Fax 946034125 www.lekeitio.com

- Esleipendunak girotzeko musika jarri ahalko du, baina musikaren bolumena ezin izango da 55dB baino altuagoa izan. Musika-aparatua gehienez ere bolumen horretara helduko dela ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko du adjudikatzaileak.

- El/La adjudicataria podrá poner música ambiental, y el volumen de la misma no podrá exceder los 55dB. La persona adjudicataria deberá presentar un justificante que certifique que el volumen equipo de música está limitado a los dB estipulados.

- Kultur-ekintza edo kontzerturik antolatu nahi izanez gero, aurretiaz Udalean komunikatu beharko da eta dagokion baimena lortu.

- En caso de organizar algún evento cultural, musical deberá comunicarse al Ayuntamiento y obtener el permiso correspondiente.

- Kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta Laneko Segurtasun eta Higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu.

- Cumplirá las disposiciones vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de Seguridad e Higiene en el Trabajo.

- Mota honetako establezimenduei dagokien Osasun-araudia bete beharko du.

- Cumplirá con la normativa sanitaria correspondiente a este tipo de establecimientos.

- Adjudikatzaileak, beharrezko neurriak hartuko ditu bere langileek bezeroei euskaraz hitz egin diezaien eta kioskoan ipiniko diren prezioen zerrenda, kartelak, gutxienez euskaraz idatzita egongo dira.

- El/la adjudicatario/a adoptará las medidas oportunas para que el personal a su cargo pueda dirigirse a su clientela en euskera, la lista de precios y los carteles que se coloquen en el kiosko estarán redactados, al menos, en euskera.

- Establezimendua ixtean, terrazaren eremua garbi eta oztoporik gabe utzi beharko da egunero. Altzariak establezimenduaren barruan gorde beharko dira.

- Al cierre del establecimiento, la zona de la terraza deberá quedar limpia y libre de obstáculos diariamente. El mobiliario deberá guardarse dentro del mismo.

- Terrazako mahai eta aulkien antolaketak ezin izango ditu inola ere plazara sartzeko bideak oztopatu, eta pertsonen joan-etorri askea bermatuko du, batez ere haurrentzako aulkiena eta mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuena. Ezin izango da Udalak emango dioen planoan jasotzen den terraza esparrutik irten. Jarri daitekeen gehienezko mahai kopurua 18 izango da.

- La disposición de las mesas y sillas de la terraza no podrá en ningún caso obstaculizar las vías de acceso a la plaza y garantizará el libre tránsito de personas y especialmente de sillas infantiles y vehículos para personas con movilidad reducida, sin salirse del ámbito concreto de terraza especificado en el plano facilitado por el Ayuntamiento. El máximo de mesas que podrán instalarse será de 18.

- Taberna irekita dagoenean, adjudikatzaileak zaindu beharko du komuna desgaitasunen bat duten pertsonek bakarrik erabil dezaten, bai eta hura garbi egon dadin ere

- Cuando el bar esté abierto, el adjudicatario deberá velar porque el WC sea de uso exclusivo para personas con discapacidad, así como por el buen estado de limpieza del mismo.

- Kontratua ezin izango zaio beste pertsona bati laga, ez osorik ez zati bat.

- No se cederá, en todo o en parte, el contrato a otra persona.

- Kontratua amaitzerakoan edo deuseztatzerakoan, instalazioak eta elementu osagarriak hartu zituen egoeran bueltatu beharko ditu eta adjudikatzaileari lokala eman aurretik Udalak egindako I. Eranskinean agertzen den inbertarioaren araberakoa izango da: baxera, mahai-tresneria, tabernako

- Al término del contrato o su resolución o rescisión, las instalaciones y elementos complementarios se devolverán en el mismo estado en que se recibieron y como figura en el inventario Anexo I realizado por el Ayuntamiento previamente a la entrega del local al adjudicatario: vajilla, cubertería,

Lekeitioko Udala – Gamarra kalea 1 – 48280 LEKEITIO (Bizkaia) IFK/CIF: P4806700C Tlf.- 946034100- Fax 946034125 www.lekeitio.com

tresneria, etab.... eta kioskoan ipinita dauden aparatu guztiek errebisio teknikoa eginda izan beharko dute.

- Debekatuta dago jabari publikoko ondasun bati dagokion inpartzialtasuna urratzen duten kartelak jartzea, bai eta pertsonen duintasunaren, berdintasunaren edo askatasunaren aurkako kartelak edo materialak jartzea ere.

utensilios de bar, etc... así como realizada la revisión técnica de los aparatos que se encuentren instalados en el kiosko.

- Queda prohibida la instalación de carteles que infrinjan la imparcialidad que corresponde a un bien de dominio público, así como la instalación de carteles o materiales que atenten contra la dignidad, igualdad o libertad de las personas.

3. UDALAREN BETEBEHARRAK

- Instalazioak era egokian uztea adjudikatzaileari.
- Udalak adjudikatzailea bera mantentzea bere obligazioak betetzen dituen heinean eta ustiapenak irauten duen bitartean.
- Agindu ahal dituen aldaketek ez dezatela kaltetu instalazioak eta zerbitzuak dituzten erabilerak eta helburuak.
- Instalazioek izan ahal dituzten eta aurreikusi ez diren akatsei eta okerrei erantzun.

3. OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO

- Entregar las instalaciones al adjudicatario en las debidas condiciones.
- Mantener al mismo en la explotación por todo el tiempo de duración del contrato mientras éste cumpla sus obligaciones.
- No contrariar el uso y destino de las instalaciones y servicios por las modificaciones que pueda ordenar.
- Responder de los vicios y defectos ocultos de las instalaciones.

4. ELEMENTU MATERIAL ETA PERTSONALAK.

Ustiatzen den lokala osatzen duten instalazioen barruan Udalak adjudikatzailearen esku ipintzen ditu inbentarioaren zerrendan agertzen diren elementuak. Ezinbestekoa izango da adjudikatzaileak kontratuarekin batera sinatzea onartutzat emateko.

Hurrengo 15 eguneko epean elementu guztiak ondo funtzionatzen duten ala ez egiaztatu beharko du. Epe hau iraun ondoren ez da onartuko honen inguruko erreklamaziorik eta, horrenbestez, edozein hutsegite adjudikatzailearen kargu joango da.

Adjudikatzaileak bere kontu osotuko ditu Udalak emandako elementuak funtzionamendu onerako ikusten dituen gainerako elementu guztiekin.

Udalak desegoki deritzon edozein elementu errefusatu ahal du eta ez du adjudikatzailea zertan indemnizatu behar izango horregatik.

4. ELEMENTOS MATERIALES Y PERSONALES

Dentro de las instalaciones que componen el local y/o servicio objeto de la explotación el Ayuntamiento pone a disposición del adjudicatario aquellos elementos que figuran en la relación inventariada, que obligatoriamente deberá ser firmada por el/l adjudicatario/a para su aceptación junto con el contrato.

Dentro de los 15 días siguientes deberá verificar el estado de funcionamiento y conservación de estos elementos, transcurridos los cuales no se admitirán quejas ni reclamaciones sobre el mismo, corriendo cualquier deficiencia por cuenta del/la adjudicatario/a.

El/la adjudicatario/a completará a su cargo los elementos que el Ayuntamiento ofrece con aquéllos otros que vea necesarios para el correcto funcionamiento del servicio.

El Ayuntamiento podrá rechazar cualquier elemento que considere inadecuado, sin que el adjudicatario tenga derecho a ser indemnizado por ello.

Lekeitioko Udala – Gamarra kalea 1 – 48280 LEKEITIO (Bizkaia) IFK/CIF: P4806700C Tlf.- 946034100- Fax 946034125 www.lekeitio.com

5. ZERBITZUA IKUSKATZEA

Adjudikatzaileak, lizitaziora aurkezte hutsagatik Balditza-Agiria onartuko du, eta Udalari eta bere eragileei baimena emango die lokalean sartzeko honen egoera eta funtzionamendua ikuskatzeko eta baita Baldintza-Arau hauek betetzen dituen ala ez egiaztatzeko. Hau guztia, publikoari zerbitzu ona eskaintzeko baldintzak betetzen ari direla egiaztatu ahal izateko.

Hori horrela, adjudikatzaileak espresuki eta formalki Udalaren eta bere eragileen kontra joateko ekintzei uko egingo die.

5. INSPECCION DEL SERVICIO

El/la adjudicatario/a, por el mero hecho de concurrir a la presente licitación y aceptar expresa y formalmente este Pliego de Condiciones, autoriza plena y formalmente al Ayuntamiento y sus agentes para entrar en el interior del local a fin de inspeccionar el estado y funcionamiento de las instalaciones, así como el cumplimiento de las disposiciones de este Pliego, de tal forma que el Ayuntamiento esté en condiciones de garantizar en todo momento el correcto funcionamiento del servicio de cara al público.

En este sentido, el/la adjudicatario renuncia expresa y formalmente a todo tipo de acciones contra el Ayuntamiento y sus agentes.

Lekeitioko Udala – Gamarra kalea 1 – 48280 LEKEITIO (Bizkaia) IFK/CIF: P4806700C Tlf.- 946034100- Fax 946034125 www.lekeitio.com